Jolas bat baino ez dunk

Lucía Baskaranek
Karabeleko fabulatzen du

Zirriborroak eta gero
Gipuzkoako bilduma #2

Zirriborroak eta gero

ZIRRIBORROAK ETA GERO

Ekoizlea
Azala Kreazio Espazioa

Proiektuaren ideia eta sorkuntza
Arantxa Mendiharat, Ixiar Rozas, Idoia Zabaleta

Aholkulari zientifikoa
Unai Pascual

Koordinazioa
Arrate Hidalgo

Bildumaren diseinua
Ibon Sáenz de Olazagoitia

Komunikazioa
Teklak. Komunikazio eta Audientzien Estudioa

Webgunea
La Debacle

GIPUZKOAKO BILDUMA #2

Idazlea
Lucía Baskaran

Alternatiba
Karabeleko

Ilustratzailea
Lola Duchamp

Itzultzailea
Danele Sarriugarte

Zuzentzailea
Amaia Apalauza

Banatzailea
NOIZ

Inprimaketa
Gráficas Dosbi

Lehen edizioa
2021eko abendua, Lasierra (Araba)

Erakunde laguntzaile nagusia
Kutxa Fundazioa
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Entitate laguntzaileak
Diario de Noticias de Álava
Hala Bedi Irratia
Kaxilda

Lege-gordailua: LG G 00815-2021

Lan hau Creative Commons-eko Aitorpen-EzKomertziala-PartekatuBerdin Nazioarteko 4.0 lizentziaren pean dago (CC BY-NC-SA 4.0).



Jolas bat baino ez dunk

Kontakizunak eta fabulak
mundu posibleei buruz

zirriborroaketagero.net

Jolas bat baino ez dunk

1

—Nolatan egin dienk hori haurrei? Nahikoa izan genianan guk! –kexatu zen Mentxu.

—Zenbait gauza ezin ditunk ulertu, norberak bizi ezean –defendatu zuen bere burua Farahk–, eta, behin eta berriz azaldu arren, mundu zaharra hain zuanan absurdoa eta bortitza, ia ezinezkoa dunk beste modu batean ulertzea.

—Guztia ulertu behar horretan tematzen haiz, gero! –esan zuen Mentxuk, txilioka–. Zergatik eusten dienk ezagutza-logika zaharpatriarkal, bizikontrako eta prekiribildarrei?

—Utzank, Mentxu –erantzun zuen Kaxildak–. Eskola zaharrekoa dunk gure Farah.

— Nire adina dink eta!

—Baina ez zianan izan hik bezalako zorterik. –Kaxi zuzen zebilen. Kiribil eratu aurretik, hiri berean bizi ziren Mentxu eta Farah, baina ez zuten elkar ezagutzen eta ez zegoen hori gertatzeko aukera handirik, non eta Mentxuk ez bazituen Farahren zerbitzuak kontratatzen. Hala eta guztiz ere, inoiz ez lukete sakonki elkar ezagutuko: hainbat mundu biltzen ziren hiri handietan, eta era bateko edo besteko indarkeriak izaten ziren haien arteko harreman bakarra.

—Nolanahi ere, ez natorrenk bat haurrei hori egitearen ideiarekin –esan zuen Mentxuk.

—Jolas bat dunk. Nahi dutenean utz zezaketenk. –Ibaian bainatzen ari ziren hiru zaharrak. Trantsizio-aldi batetik atera berria zen Kaxilda, eta Farah arduratu zen azken albisteen berri emateaz: bezperan, afaldu aurretik, Zuhaitzek beste behin ere eskatu zion azaldu ziezaiola nolakoa zen bizitza Kiribil baino lehen. Zuhaitz ez zen inoiz nekatzen Farahren istorioekin, eta Farahk gogotik kontatzen zizkion. Haurrari zaila suertatzen zitzaion zenbait ideia ulertzea, baina gustuko zuen Farahren hitz antzinakoen sonoritatea, eta oharrak idazten zituen hura mintzatu bitartean. Farah hizketan hasi bezain pronto, lasterka inguratu zitzaizkion beste haurrak, haren kontamoldea gustatzen zitzaielako, eta isil-isilik egoten ziren zaharrak hitz egin bitartean.

—Lasterketak gustatzen al zaizkizue? –galdetu zien Farahk.

—BAI! –oihukatu zuten haurrek, aho batez.

—Imajinatu guzti-guztia korrika egin behar bazenute.

—Bai dibertigarria! –deiadar egin zuen Zuhaitzek, eta beste haurrek barre egitea eragin zuen. Irri egin zuen Farahk ere.

—Itxura ona du, ezta? Zergatik ez duzue aproba egiten? Hona nire desafioa: egin itzazue biharko zeregin guztiak korrika; ez bakarrik zuei egokitutako eginbeharrak, baita premiak eta jolasak ere. Zer iruditzen? –Txaloka hasi ziren haurrak, pozarren, eta batzuk ez ziren gai izan kuluxka egiteko ere, aztoramenduaren aztoramenduaz.

Biharamunean, Farah umeen zain geratu zen Zubi Zaharrean, argibideak emateko: dena korrika egiteaz gainera, haurrek ezin zuten kuluxkarik egin eguzkia ezkutatu arte. Protesta egin zuten batzuek; beste zenbaitek, ordea, hizkuntza arrotz batean ari balitz bezala begiratu zioten zaharrari. «Hil egingo gara!», esan zuen Lilik, oihuka, eta txikienak negarrez hasi ziren. «Inor ez da hilko», erantzun zuen Farahk. «Zuen zereginak egingo dituzue, eta, azkar-azkar jardungo zaretenez, askoz denbora gutxiago beharko duzue amaitzeko; hortaz, bukatzen duzuenean, zeregin gehiago emango dizkizuet. Eguerdian, gelditu egingo zarete; zerbait jan, eta, ondoren, zereginei helduko diezue berriro, afalordura arte. Eta, amaitzean, zortzi orduko kuluxka egingo duzue».

—Nork egin nahi dink zortzi orduko kuluxka? Bai aspergarria! —protesta egin zuen Kirmenek.

Haurrak lasaitu arte itxaron zuen Farahk.

—Egun bat baino ez da. Zin dagizuet ez zaretela hilko.

—Farahk arrazoi du –esan zuen Zuhaitzek–, egun bat baino ez da. –Farah ohartua zegoen Zuhaitzek beste haurren gainean zuen eraginaz. Haren ausardia eta kemena lasaigarria gertatzen zitzaien gaztetxoenei, eta oso gogoko zuten Zuhaitzen ondoan egotea, egonarritsuena zelako eta hark laguntzen zielako gehien. –Gainera, jolas bat baino ez da. Nahi dugunean utz zezakeanagu. Ezta, Farah?

—Jakina –erantzun zuen zaharrak. Ondoren, egunari buruzko xehetasunak azaldu zizkien: lehenik, asteko otarrak prestatu, eta lekak bilduko zituzten, akastunak erauziz eta bereiziz. Ontziak bete ostean, tomate-haziak ereingo zituzten. Gero, besteekin elkartuko ziren, hamaiketakoa egiteko, baina ordu erdiz bakarrik. 11:30ean, asteko eskariak inprimatu eta sailkatuko zituzten, eta, gero, trantsizio-aldian ari ziren kideengana joango ziren bisitan. Ordubeteko tartea izango zuten haiekin bazkaltzeko; ondoren, hilabeteko aisialdi-jarduerak planifikatu eta komunitatearen proposamen guztiak bilduko zituzten. Gaztetxoenez arduratuko ziren, afaria prestatu, mahaia bildu eta den-dena garbituko zuten, eguzkia ezkutatu aurretik. Eguna amaitutzat jo baino lehen, haren hileta prestatuko zuten; Farahren hileta, alegia, aste hartan hiltzea erabaki zuen eta.

2

Farahk azkar-azkar antolatu zituen taldeak: irakurtzen zekien pertsona bat behintzat sartu behar zen multzo bakoitzean, eta zazpi urtetik beherako haurrek ez zuten parte hartuko.

—Baina nik parte hartu nahi dianat! –kexatu zen Lili.

—Sentitzen dianat, Lili, baina hobe dunk horrela. Gainera, besteak arduratuko ditunk zeregin guztiez, eta jolasteko denbora gehiago izango duzue horrela. –Gaztetxoenak, nonbait, kontent geratu ziren azken hori entzunda, baina hala ere ikusi nahi izan zuten nola konpontzen ziren beren kideak, eta atzetik joan zitzaizkien.

Farahk abisu ematearekin batera, negutegiko bulegorantz abiatu ziren haur guztiak, arrapataka. Iskanbila galanta sortu zuten: gehiegi ziren gela hartan eroso sartzeko; beraz, Zuhaitzek hartu zuen agintea.

—Ez dago hainbeste jenderen beharrik eskariak inprimatzeko. Itxaron kanpoan, berehala aterako naiz. –Negutegitik irten ziren haurrak, urduri. Korrika egin behar al zuten, Zuhaitz ateratzeko zain zeuden bitartean? Kirmenek uste zuen baietz, baina Uxoak esan zuen ez zegoela premiarik, bost minutu eskas izango zirela: zereginak korrika egiteko

esan zien Farahk, baina itxaronaldiak ez ziren horren barruan sartzen. Mintzatu ahala, bere buruan antolatu zituen zereginak, haiek ahalik azkarren egiteko eran, eta denak lasterka ibil zitezela eta bulegoan bezalako zalaparta sor zezatela eragozteko.

—Eskari-orriak banatuko ditu Zuhaitzek; bien bitartean, otarren bila joango dira gaztetxoenak, eta Kirmenek eta biok dataren arabera sailkatuko ditugu eskariak. Ondoren, talde bakoitza nahi bezala antolatuko da saskiak betetzeko. Konforme? –Lurralde osoa barazkiz hornitzen zuen Kiribilek, eta, astelehenetako zereginen artean, besteak beste, eskariak otarretan banatzen zituzten, ondoren bidaltzeko. Horren truke, gainerako komunitateek –mila biztanletik beherakoak ziren gehienak– hainbat zerbitzu eskaintzen zituzten: Matzurretan, adibidez, erregai ekologikoa sortzen zuten; Toletxeko biztanleak, berriz, ehungintzaren arloan zihardute; Errioxekoek, mahasti-zaintzan, eta abar. Komunitate bakoitzak zeregin berezitu bat izan arren, guztietan zeuden irakasleak, sendagileak, iturginak, arotzak eta antzekoak. Herrien arteko transakzioetarako truke-sistema bat erabiltzen zuten, urteen poderioz hobetua, eta haren bitartez ziurtatzen zuten inork ez zuela ezeren faltarik.

Lurrak ematen zuena biltzen zuten kiribildarrek, behar baino gehiago ustiatu gabe eta naturaren erritmoak errespetatuz. Egun hartan, uraza, patata, azenarioa eta erremolatxa sartuko zituzten saskietan, hau da, urte osoan landatu zitezkeen barazkiak, bai eta uda-garaiko batzuk ere: tomatea, alberjinia, piperra, luzokerra eta babarruna.

—Kirmen? –galdetu zuen Uxoak.

—Pentsatu dianat beharbada hobe dela Lalo, Hodei, Noa, Peru eta Siri otarren bila joatea eta Zuhaitzek, Marek eta guk laurok betetzea.

—Zergatik?

—Ez dutelako hain bizkor korrika egiten. –Kirmenek aipaturiko haurrei erreparatu zien Uxoak. Noak eta Hodeik baietz egin zuten buruaz, baina bazirudien Siri, Peru eta Lalo lotsatuta zeudela. Zuhaitz orduantxe atera zen bulegotik, eta zerbait oker zebilela ohartu zen.

—Zer gertatu dunk? –Egoera azaldu zion Uxoak, eta gehitu zuen kide haiek beharbada ez zirela hain azkar aritzen baina ondo baino hobeto egiten zutela beren lana, besteek baino arreta handiagoarekin, eta ez zutela inoiz okerrik egin saskiak betetzeko garaian.

—Zuek zer egin nahi duzue? –galdetu zien Zuhaitzek.

—Nire ustez... –hasi zen Lalo, baina Kirmenek eten zion jarduna.

—Zereginak ahalik azkarren egin behar baditianagu, hobe dianagu neuk esan bezala egitea. -Kirmenen jarrerak harri eta zur utzi zituen denak; haur burugogorra izan arren, ez zuen inoiz erakutsi halako zorrozkeriarik.

—Erabakiak bizkorrago hartu behar ditianagu -sartu zen Mare-. Denbora gehiegi pasatu dianagu eztabaidan.

—Ados nagonk -baieztatu zuen Kirmenek.

Zuhaitzek ez zuen oso argi ikusten zer esan nahi ote zuen «denbora gehiegi» esamoldeak. Normalean, presarik gabe egiten zituzten egin beharrekoak, guztien erritmoak aintzat hartuz, baina onartu beharra zuen Marek eta Kirmenek arrazoia zeukatela.

—Ongi, egun bat baino ez dunk -esan zuen Zuhaitzek, Uxoari begira, zeina besoak hazta eginda baitzegoen, Mareri eta Kirmeni so, zer esan jakin gabe-. Egin dezagun Kirmenek esan bezala, eta gero gerokoak.

—Eta ez al da hobe dena oraintxe bertan planifikatzea? Horrela ez dianagu denborarik galduko -esan zuen Kirmenek.

—Astuna haiz, gero, «denbora galtzearen» kontu horrekin! -erantzun zuen Uxoak-. Denbora ez da sekula galtzen! Nondik atera dunk esamolde hori?

—Farahk erakutsi zidaanan. -Harro zegoen Kirmen, besteek ez zekiten zerbait bazekielako. Zuhaitzek ere bazekien zer esan nahi zuen «denbora galtzeak», baina ez zuen txintik esan, sua ez xaxatzeko.

—Tira, hobe dianagu behingoz hastea, ez dezagun denborarik gal... -ekin zion Zuhaitzek. Uxoa marmarka hasi zen esaldia amaitu aurretik-. Ez dianagu berandutu nahi; asko zagonk egiteko.

3

Amaitu baino zertxobait lehenago, taldea zatitzea proposatu zuen Sirik: uraza biltzeaz arduratuko ziren gaztetxoak, eta nagusiak, berriz, porrua landatzeaz. Ados agertu ziren denak: gaztetxoenak, gorputzez txikiagoak izanik, nagusiak baino eraginkortasun handiagoz mugituko ziren negutegian barna.

Nagusiek bizkor amaitu zituzten landatzeari zegozkionak, eta negutegira abiatu ziren, lasterka, gaztetxoei laguntzera. Gaztetxoak beren ohiko erritmoan ari zirela ikusirik, Kirmenek ez zuen ezkutatu bere pairamenik eza.

—Oso poliki ari ditunk.

—Ordu erdi zaukaanagu oraindik hamaiketakoaren garaia iritsi arte. Lasaitu hadi –erantzun zion Marek. Uxoak irribarre egin zuen bere kautarako. Mare ez zuen inork kikilaraziko.

Haur guztiek gerrikotik zintzilik zeuzkaten bilketa egiteko behar ziren tresnak. Nagusiek, aiztoak gerrikotik hartu, eta urazen ipurdiak mozteari ekin zioten, gaztetxoekin batera.

—Ebaki bat egin dianat! –oihu egin zuen Hodeik.

Marek, aiztoa askatu, eta txikiari laguntzera jo zuen berehala.

—Ai! –garrasi egin zuen Lalok. –Mina hartu dianat!

Lalorengana hurbildu zen Uxoa. Ebaki bat zeukan erpuruan; ez zirudien larria zenik, baina odol asko zerion, eta umetxoa izututa zegoen.

—Botika-kutxaren bila noank –esan zuen Uxoak–. Berehala itzuliko naunk.

Laloren lantua aditurik, Hodei ere negarrez hasi zen. Gainerako gaztetxoak, egiten ari zirena utzi, eta kidearengana joan ziren.

—Baina zer demontre? –oihukatu zuen Kirmenek–. Zereginketan segitu behar dianagu!

—Ez! –txilio egin zuen Lalok, aurpegia bustita–. Ez, ez eta ez!

—Ez! –garrasi egin zuten gaztetxoak, aho batez.

Kirmenek, hasperen egin, eta Zuhaitzi begiratu zion; hura jolasetik kanpo geratu eta zelaian alai etzanda zeuden umetxoei so zegoen: korrika zebiltzan batzuk, nagusiak antzeratu nahian; aterpe bat eraikitzen ari ziren beste zenbait, eta beste batzuk, azkenik, belarraren gainean etzanda zeuden, beren genitalak ukitzen. Zuhaitzek ondo gogoan zuen hankarteko laztanek eragiten zioten kilima deskubritu zuen eguna. Bere lagunekin partekatu nahi izan zuen berehala; haiengana gerturatu, eta hitzik gabe erakutsi zien bere deskubrimendu berria, oraindik ez baitzen ondo mintzatzen. Haurrak ohituta zeuden ordurako beren gorputzak nahiz beren kideenak biluzik ikustera, Kiribileko biztanleek ez baitzuten arroparik erabiltzen beroa egiten zuenean eta zereginketan ez zihardutenean; dena den, egun hura iritsi arte ez zuten sentitu beren gorputzak arakatzeko jakin-minik.

Belar gainean jirabiraka igaro zuten arratsaldea, gozamenez barre eginez, bakoitzaren formak alderatuz.

—Uki zezakeanat hirea? –galdetu zion Kirmenek Zuhaitzi.

—Jakina! Eta nik hirea?

—Bai!

Handik tarte batera, Uxoa eta Mare etorri ziren, eta Kirmeni eta Zuhaitzi erakutsi zieten nola lortzen zuten kilima hura sentitzea: etzan

ziren, belaunak tolesturik, eta beren genitalak estali zituzten, esku bat bestearen gainean jarriz; ondoren, gorantz eta beherantz mugitu ziren. Marek, luze gabe, are gehiago gustatzen zitzaion modu bat aurkitu zuen, kilima bizkorragoa zekarren modu bat: aski zuen hanken artean burko bat jartzea eta aldakak aurrera-atzera mugitzea. Elkar ukitu zuten umeek, eta Uxoak eta Marek irri egin zuten Zuhaitzen eta Kirmenen genitalen forma nola aldatzen zen ikusirik, zeta-har lodi baten tankeratik zizare gogor baten itxurara igaro baitziren.

Orain, ordea, gaztetxoenak ari ziren beren gorputzak eta beren kideenak deskubritzen, eta Zuhaitzek inbidiaren sastada sentitu zuen, kilima estreinako aldiz nabaritzen zuten haurrei begira.

—Aizank! Zertan habil? –Zuhaitzen ameskeriak eten zituen Kirmenen oihuak–. Ea, zereginketara!

Bere kideari erreparatu zion Zuhaitzek. Zerbait aldatua zen Kirmenen aurpegieran. Bazirudien begiak handitu zitzaizkiola, eta keinu bitxi bat ageri zitzaion ahoan, keinu arrotza Zuhaitzentzat. Hurbildu zen Kirmenengana, eta ipini zion eskua sorbaldaren gainean.

—Ondo al hago?

—Bai! Baina ezin gaitunk gehiago berandutu! Zereginketan segitu behar dianagu!

—Kirmen –esan zuen Zuhaitzek, aurpegia serio–. Jolas bat baino ez dunk.

4

—Zer moduz doa goiza? –galdetu zien Korok. Kiribildar guztiek zuten Farahk proposatutako jolasaren berri, eta biztanlerik zaharrenak haren guztiz kontra agertu ziren, ondo gogoan baitzituzten eurite biziak, muturreko tenperaturak, ekaitz bortitzak eta uholdeak, bai eta haien ondorioak ere: supermerkatuetako hornidurarik eza, errepide-mozketak eta ezin konta ahal heriotza, hala gizakienak nola animalienak. Haiek erabaki zuten Kiribil eraikitzea, guztia gain behera etorri aurretik: eguzkiari eta haizeari esker argindarra ekoiztea lortu zuten, eta buru-belarri heldu zioten nekazaritza ekologikoari, bere garaian Karabelekon egiten zen moduan –etxalde agroekologiko hartan hainbat urtez lan egindakoak ziren asko–. Azken batean, Karabelekoren bertsio hedatua zen Kiribil, leku bat zeinetan trantsizio-aldiak (mundu zaharrean «buruko gaitzak» deiturikoak) ez baitziren estigmatzat hartzen eta trantsitatzaileak ongi etorriak baitziren. Etxaldeko zereginetan

jarduten ziren, eta kideekin batera egiten zituzten trantsizio-aldiak, Kiribilen bezalaxe.

—Oso ondo! –erantzun zuen Kirmenek. Besteek baietz adierazi zuten buruaz–. Ez gaudenk batere nekatuta! –Taldeko nagusiek elkarri begiratu zioten, irribarre konplizearekin.

—Gaur ederki lo egingo duzue, ziur nago –esan zuen Korok, jostari.

Egun hotzetan, Etxolan hartzen zuten hamaiketakoa; eguzkia egiten bazuen eta ateri bazegoen, berriz, larrean ipintzen ziren. Biribil bat osatzen zuten denen artean: aulkietan esertzen ziren batzuk, zutik geratzen ziren beste zenbait, eta gainerakoak kuxinetan bermatzen ziren. Egun hartan, Korok gidatu behar zuen saioa, eta, ohi bezala, lehentasuna eman zitzaien trantsizio-aldian zeudenei edo halako batetik atera berri zirenei.

—Iratzarri bezain pronto, eguzkia jaiki eta burua lainoz bete aurretik, oinez ibiltzera joaten naiz, albait bizkorren –hasi zen Kaxilda–. Lurrezko bideetan barna abiatzen naiz, errotara heldu arte, eta arnasa hartzen dut, urratsak eginaz batera; saiatzen naiz sakon arnasten, baina zaharra naiz jada, belaunek huts egiten didate eta buruak ere bai: bat-batean hustu egiten naiz, puxika bat nola, eta ez daukat ezertarako indarrik; negar egin, etzan eta lokartu besterik ez dut nahi.

Kaxilda besarkatzera abiatu ziren Uxoa, Zuhaitz eta Peru, eta zaharrak ezin izan zien malkoei eutsi. Besteak isilik geratu ziren, Kaxildak amaitu arte, eta, ondoren, Korok galdetu zion ea zer egin zezaketen haren trantsizioan laguntzeko.

—Hiltzen lagundu nazazuen nahi dianat –erantzun zuen Kaxildak–. Farahrekin alde egin nahi dianat.

—Baina guk ez dianagu nahi hi joaterik! –esan zuen Lilik, deiadarka. Xuban, Liliren aita biologikoa, haren aurrean makurtu zen, eta eskuetatik heldu zion, leunki.

—Entzudank, Lili: Kaxik alde egin nahi dink. Egon nahi ez duen toki batean egotera ezin dianagu behartu.

Txikiak ez zuen erantzun. Kaxildaren hankak besarkatzera joan zen, korrika, aurpegia malkotan blai.

—Ez joan! –Burua laztandu zion Kaxildak, eta besotan hartu zuen gero. Ezin hobeto gogoratzen zuen Lili munduratu zen eguna. Beldurrak airean zegoen Tala, lehen aldia zuelako eta sabelak estutasuna eragiten ziolako, beraren gorputz-atal bat ez baizik eta gauza arrotz bat balitz bezala, aldez aurretik jakinarazi gabe han instalatua. Haurdunaldi zaila izan zuen: lehen hiruhilekoan, ahoratzen zuen ia guztia

botatzen zuen Talak, eta ahul zegoen. Ondoren, abaila bizian hazi zitzaion sabela; bazirudien bitan zatituko zela haren gorputz liraina. Kaxildak Talaren ondoan igaro zuen haurdunaldi osoa –haren jaiotza ikusitakoa zen–, zaharraren alboan bakarrik lasaitzen baitzen hura, kontuak kontatzen zizkionean minak eta goragalea tarte batez ahatz zitzan.

Espero baino lehen heldu zen Lili, baina horrek ez zuen arazorik sortu komunitatean, dena gertu zeukaten-eta Etxolako atzeko gelan; areto zabal hartan zeukaten erdi-urren zegoenak behar izan zezakeen guztia: koltxoi etzangarri bat; erdian zulo handi bat eta alboetan oinentzako euskarri bana zeuzkan eserleku bat, zeina lagungarria baitzen jaioberria atera zedin, batez ere kideetako batek haurdunari laguntzen bazion besapeetatik oratuz, grabitateak bere lana egin zezan; pilota handi bat, haren gainean bote egin nahi baldin bazuen; koltxoi bat, ez zezan minik hartu ez belaunetan ez eskuetan, baldin eta lau hankan jarri nahi bazuen; lau lagun sartzeko aski handia zen igerileku bat; zapi garbiak; infusioak, eta bainuontzi bat zeinetan, erditzeak ez ezik, abortuak ere egiten baitziren bortusaia erabiliz –landare hori debekatuta zegoen mundu zaharrean, medikuei lana kentzen zielako–. Gainera, aretoko argiztapena molda zitekeen, erdi-urren zegoenak erosoena suertatzen zitzaiona aukeratu zezan.

Erdiminak iraun bitartean Kaxildarekin bakarrik egon nahi zuela esan zuen Talak. Prest zegoelarik, aulkiaren gainean jarri zen, kukubilko, eta beste kide bati deitzeko agindu zuen, besapeetatik hel ziezaion indarra egin bitartean.

Hamasei orduren buruan, Kiribilera iritsi zen Lili, txiki eta zimur, birika betean garrasika. Kaxilda arduratu zen hura garbitzeaz eta janzteaz, eta Talari eman zion ondoren, zeinak mesfidantzaz erreparatzen baitzion jaioberriari. Kiribilen, biztanleen trantsizioetako bat baino ez zen mundu zaharrean «erditze-osteko depresioa» zeritzon hura. Talak prest zegoela erabaki arte, beste kiribildar batzuek zaindu zuten Lili: Munik, bi hilabete lehenago erditua baitzen, edoskitzen eman zion txikiari, eta gainerako zaintza-lanak komunitateko kideen artean banatu ziren. Kaxildak Liliren loa zaindu zuen hiru hilabetez. Tala bisitan joaten zitzaien ia egunero, ninia apurka-apurka ezagutuz: hatz bat eskaintzen zion, haurrak oratu ziezion. Behin batean, umeak edoski ostean, besotan hartzen utz ziezaion eskatu zion Talak Muniri, eta irri egin zuen Liliren puzker-sinfoniarekin.

—Txiki-txikia dunk eta! –Ordutik aurrera, Lilirekin adiskidetu zen Tala, arian-arian; haren buruaren usainaren eta azalaren ukiaren mendeko bihurtu zen, eta, are, harekin kuluxka egiteko eskatu zuen, oso maiz.

Orain, desesperaturik erreparatzen zion umeak. Talak, besotan hartu, eta baratze txikira eraman zuen, haurraren espazio segurua baitzen.

Mundu berrian zeregin zaila zen, oraindik ere, txikienei heriotza zer zen azaltzea. Azken batean, trantsizio-aldi bat zen, eta jai-giroan ospatzen zen, udaberriaren etorrera, uzta-garaia eta kiribildarrek beren arbasoengandik berreskuratutako beste mugarri batzuk bezalaxe, baina haurrak triste jartzen ziren berdin-berdin. Haientzat, sekula gehiago ikusiko ez zuten lagun baten abiatzea zen heriotza.

—Biok batera joango gaitunk. –Kaxildaren eskua hartu zuen Farahk, eta bereen artean estutu. Ondoren, txikiei zuzenduz, honela esan zuen: –Nire kuttunak! Bukatu dunk zuen ordu-erdia! Prest al zaudete? Aurrera! –Zuhaitz eta Uxoa ez beste guztiak negarrez ari ziren, eta bi haiek ez ziren ausartu beren kideei esatera korrika egin behar zutela hurrengo zeregina.

—Marek eta biok asteko eskariak prestatuko ditugu; besteak, berriz, kideak ikustera joango zarete, eta amaitzean elkartuko gara zuekin –esan zuen Kirmenek. Elkarri begiratu zioten Uxoak eta Marek. Zeinek erabaki zuen Kirmenek antolatuko zuela taldea? Marek ahoa ireki zuen, protesta egiteko prest, baina hobeto pentsatu zuen gero: beren premia zuten trantsitatzaileek, zain zeuzkaten. Eta beste edozer baino garrantzitsuagoa zen hori.

Ez zegoen bisitak aldez aurretik planifikatzeko beharrik: haur bakoitzak bazekien nora joan behar zuen. Trantsitatzaileek hautatzen zituzten beren konfiantzazko lagunak, hau da, erosoen sentiarazten zituzten pertsonak, eta, bi alderdiak ados egonez gero, konfiantzazko lagunak bisitan joaten zitzaizkien trantsitatzaileei. Batzuk beren betiko gelan egoten ziren; beste zenbaitek, ordea, gainerako kideengandik urrun egoteko premia izaten zuten, zaila suertatzen baitzitzaien jendearekin harremanetan egotea edo mina eragiten baitzien soinu den mendrenak ere. Hori dela-eta, kiribildarrek bost txabola txiki eraiki zituzten herrigunearen aldirietan, herria inguratzen zuten lurrezko bideetatik iristeko modukoak. Baratze txiki bat zeukan etxola bakoitzak, trantsitatzaile askok faltan izaten zutelako zereginketa eta bakean sentitzen zirelako beren lursail txikia zainduz. Ez elikagairik

ez bestelakorik falta ez zitzaiela egiaztatzeko baino ez zitzaizkien hurbiltzen konfiantzazko lagunak, eta trantsitatzaileek nahi zutenean bakarrik geratzen ziren.

Iriren etxolara zuzendu aurretik, janaria, ura, karta-sorta bat, liburutegiko bi liburu, koaderno bat eta boligrafo bat sartu zituen Uxoak zorro batean. Azken bisitan, bien artean istorio bat idatziko zutela zin egin zion Irik Uxoari, eta, etxolara zihoalarik lasterka, triste jarri zen Uxoa, pentsatuz ez zuela modurik izango bere kidearekin luzaro egoteko eta ez zutela astirik izango ezer idazteko.

—Sartu –Iri ez zen ohetik altxatu.

—Zer moduz lo egin dunk?

—Gaizki, oso gaizki. –Zorroa jangela txikiko aulkietako baten gainean utzi, eta Iriren ondoan jesarri zen Uxoa.

—Zer behar dunk?

—Lo egin nahi dianat. –Iri ez zegoen aldarte onean, argi zegoen.

—Eskatutakoa ekarri dianat.

—Gaur ez dianat idatzi nahi. –Uxoak arindu galanta hartu zuen hura entzunda; jolasari buruzkoak kontatu zizkion, eta barkamena eskatu zion ezin zelako luze geratu.

—Ongi dunk. Gaur ez zeukaanat gogorik inor ikusteko.

—Zerbait jan nahi?

—Orain ez. Gero jango dianat. Bai jolas txatxua. Ez dakianat zergatik egiten diozuen kasu Farahri. –Mundu zaharra ezagututakoa zen Iri, baina ez zuen inoiz hitz egiten hartaz. Esaten zuen ez zuela merezi hain gauza lazgarriaz oroitzea.

—Farahk esan zianan hobeto ulertuko genuela horrela. Gainera, jolas bat baino ez dunk.

—Iraganeko sufrimendua berriro bizitzea ez dunk jolasa, perbertsioa baizik. –Uxoa ez zen ausartu «perbertsio» hitzaren esanahia zein zen galdetzera. Gauza bakarra zerabilen buruan: handik hanka egitea, zereginketan jarraitzeko eta jolasa irabazteko.

—Beste ezer behar al dunk?

—Ez, eskerrik asko. Segi, ospa; irrikatan hago eta. –Lotsagorritu zen haurra, eta, zer erantzun ez zekienez, tupustean agur esan, eta korrika atera zen etxolatik. Jada ez zitzaion jolasa gustatzen; negar egiteko gogoa zuen, baina ezin zion korrika egiteari utzi: bazirudien bera baino indartsuagoa zen zerbaiten mende zeuzkala zangoak, eta beren kabuz abiatzen zirela lasterka. Zereginketan jarraitzeko estrategiek ordezkatu zuten Irirekin pazientziarik erakutsi ez izanaren

mina: Irik ez zuenez konpainiarik nahi, nahi adina denbora zeukan; ondorioz, aisialdi-jarduerak planifikatuko zituen, baita komunitatearen proposamenak antolatu ere. Hala, besteek amaitzean, txikiez arduratzea, afaria prestatu eta biltzea, eta Farahren eta Kaxildaren hileta antolatzea baino ez zitzaien geratuko.

5

—Zertan ari haiz? –la aldi berean iritsi ziren Kirmen, Mare eta Zuhaitz.

—Irik ez zianan konpainiarik nahi, eta zereginak aurreratzen ari naunk.

—Guztion eginbeharra dunk hori –erantzun zuen Kirmenek.

—Uxoak lagungarri izan nahi zianan, besterik ez –sartu zen Zuhaitz.

—Ba niri iruditzen zaidank lehenengoa izan nahi duela, onena.

—Aski! –garrasi egin zuen Marek–. Zer mozolokeria-klase dunk hori? –Gainerako haurrak, apurka-apurka iritsirik, ez ziren taldera hurbiltzera ausartu, eta harri eta zur begiratzen zieten beren kideei. Txikienek eskutik heldu zioten elkarri, oraindik basoko bizitzen beldur izan eta han barneratu behar zutenean bezala.

—Lehena iritsi haizela esan nahi hion Farahri. Azkarrena haizelako, edo hori uste dunk hik behintzat. –Kirmenek ez zuen esaldia amaitu. Gainera bota zitzaion Uxoa, eta jira-biraka hasi ziren zelaian. Kirmeni eutsi zion Zuhaitzek, eta Uxoari Marek.

—Haren alde jartzen haiz beti! –garrasi egin zuen Uxoak–. Beti zuek biak elkarrekin, sekretu baten jabe bazinete bezala! Besteok baino hobeak bazinete bezala! –Bi malko bero amildu zitzaizkion masailetan behera; bien bitartean, atzetik besarkatzen zuen Marek, zera xuxurlatuz: «Lasai, Uxoa».

Korrika hurbildu zen Tala, Lili besotan zuela, iskanbila aditu baitzuen baratzetik.

—Zer gertatu dunk? –Aldi berean mintzatu ziren laurak: negarzotinek etendako ahotsarekin, Uxoa; garrasika, berriz, Kirmen eta Zuhaitz; Marek bakarrik hitz egiten zuen lasaitasunez.

—Ez dianat ezer ulertzen. Hitz egin banaka, mesedez.

—Kuluxka egin nahi dianat! –oihu egin zuen Sirik.

—Jan nahi dianat! –esan zuen Lalok.

Hainbat haur negarrez hasi ziren.

—Ezin dianagu kuluxkarik egin! –Besteen gainetik altxatu zen Zuhaitzen ahotsa–. Lehenik, zereginak amaitu behar ditianagu. Jolasa...

—Ez dianat gehiago jolastu nahi! –protesta egin zuen Marek. Arrazoia eman zioten zenbait umek.

—Ez zaretelako abilak, horregatik ez duzue jolasten segitu nahi –esan zuen Kirmenek.

—Aski! –sartu zen Tala–. Farahren bila noank oraintxe bertan, eta kontu honekin amaituko dianagu behin eta betiko. Gelditu hemen gu itzuli arte.

Negutegiaren atzean desagertu zen Tala, eta isiltasuna nagusitu zen. Ondoren, Zuhaitzek, harramazkaz eta lurrez beterik azala, esan zuen: «Jolasarekin segitu behar dianagu. Hasitakoa burutu behar dianagu». Begirada absentea zuen, deabruak hartua bezala.

—Bost axola jolasa! Inor ez dunk dibertitzen ari. Kuluxka egin, jan, eta aurreko jolasetan aritu nahi dianagu denok –erantzun zuen Marek.

—Arrazoia dink Zuhaitzek –esan zuen Uxoak–. Bukatu behar dianagu.

Zelaitik altxatzen ahalegindu zen, baina ez zeukan ia indarrik, marruka ari zitzaion sabela, eta betazalak astun nabaritzen zituen.

—Zuek erotuta zaudete! –txilio egin zuen Marek.

—Zer dunk «erotuta»? Ez asmatu hitzik!

—Marek ez dink ezer asmatu –haurren atzean agertu zen Farah–. Mundu zaharrean bizi ginenok gintuanan eroak. Ulertu duzue, nire kuttunak. Ea, goazen denok afaria prestatzera.

ZIRRIBORROAK ETA GERO

Zirriborroak eta gero alternatiba eta utopien etorkizuna irudikatzen duten ipuin laburren bilduma da. «Jolas bat baino ez dunk» kontakizunean, Lucía Baskaran idazleak Karabeleko etxaldean garatzen den osasun mentalaren eta agroekologiaren arteko harremanaren etorkizuna arakatzen du.

Karabeleko. Karabeleko etxalde esperimental aitzindari bat da ekonekazaritzaren arloan, Agifes, Blasenea eta Kimu Bat entitateek lankidetzan sortua eta irabazi-asmorik gabekoa. Elkartearen helburua nekazaritza ekologikoa sustatzea eta barazkigintza ekologikoaren ekoizpen- eta kontsumo-kultura zabaltzea da. Esperimentazio-zentro irekia da, bai publikoarentzat eta bai barazkigintza ekologikoaren sektoreko profesionalentzat ere. Bertan, espezie ugari aztertzen dituzte ekonekazaritzaren garapena sustatzeko eta kantauriar eremuko ekoizleei aholkularitza eskaintzeko. Buruko gaixotasunak dituzten pertsonei eta baztertze-arriskuan dauden beste kolektibo batzuei zuzendutako errehabilitazio psikosozialerako zentroa ere bada. Arlo horretan, buruko gaixotasunen inguruko gizarte-sentsibilizazioa bultzatzea dute helburu.

Lucía Baskaran (Zarautz, 1988) *Gorputz madarikatuak* (Alberdania, 2019 - Temas de Hoy, 2019) eta *Partir* (Expediciones Polares, 2016) eleberrien egilea da. *Ya no recuerdo qué quería ser de mayor* (Temas de Hoy, 2019) ipuin-bilduman parte hartu du, eta Alix Kate Shulmanen *Memoirs of an Ex-Prom Queen* itzuli du gaztelaniara, *Memorias de una ex reina del baile* izenburupean. *El País*, *Diario El Salto*, *El Periódico de España* eta *Glamour*en idatzi izan du, beste hainbat argitalpenen artean. Gaur egun, hirugarren eleberria idazten ari da, eta aurreikusten da 2022rako argitaratuko duela. Literatura feminista eta LGTBIQ+ irakasten du, eta Donostian bizi da.

Zirriborroak eta gero **Azala** egonaldi artistikoak garatzeko espazioan sortua da, Lasierra herrian, Araban kokatua dagoen 12 biztanleko herrian hain zuzen, artadi baten mendi-magalean. 2008an abian jarri zenetik, lankidetza mota anitz sustatu ditu beste erakunde kultural batzuekin, eta lotura gero eta estuagoa egin nahi du inguru hurbilean egiten diren jarduerekin. Fabula hau sortzeko, Azalak «Futurible» saio bat antolatu zuen, 2021eko ekainaren 22an, etorkizun batean zer gerta daitekeen ikusteko.

GURE ESKER ONA

Mila esker proiektu hau lantzeko denbora, ilusioa eta indarra oparitzen diguten guztiei.

Gipuzkoa #2 honetan, eskerrak eman nahi dizkiegu kide hauei: Lucía Baskaran; Lola Duchamp; Eneko Arakama, Ainhoa Sanpedro eta Amaia Odriozola (Karabeleko), eta Unai Pascual. Eskerrik asko, halaber, beste hainbat laguni ere, proiektuan parte hartzeagatik eta «Futurible» saioan gurekin batera egoteagatik: Silvia Calleja, Irene Intxausti Basilio (Teklak), Itsaso Larramendi (Tipi), Anneke Raskin eta Maite Telleria (Azala)

GIPUZKOA BILDUMA #2

2.300 aleko edizioa. Gipuzkoako hainbat taberna eta iragate-tokitan lor daiteke. Irakurri ez ezik, narrazioa aditzeko aukera ere badago, zirriborroaketagero.net webgunean.